



**Arartekoaren 2018R-954-18 Ebazpena, 2018ko abenduaren 3koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala 4.1.3. artikuluan aldatzea gomendatzen da, ibilgailu historiko eta zaharretarako aurrez ikusten diren hobarien onuradun izateko orduan baldintza bat ez dadin izan klub edo elkarte baten barruan egotea.**

### Aurrekariak

1. Zergadunak kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean. Bere desadostasuna adierazten zuen Gasteizko Udalak berariaz ez baitzion erantzun 2018ko otsailaren 2an egindako eskeari. Aurrekoaren arabera, bere iritziz, elkarteko askatasunaren eskubidea, trakzioko mekanikoko ibilgailuei buruzko zerga arautzen duen ordenantza fiskalak 4.1.3. artikuluan xedatutakoa, urratzen zen, zerga-onura zehatza lortzeko elkartearen kide izan behar baitzuen.

Ibilgailu zaharrei dagokienez, 4.1.3. artikulua trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuotan % 90eko hobaria onartzeko baldintzak arautzen ditu.

Zehatz-mehatz esanda, artikulua hala dio:

*“Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotaren % 90eko hobaria emango da ibilgailu historikoak nahiz hogeita bost urtetik gorakoak direnean, fabrikatu zirenetik kontatuta. Fabrikatze data ez bada ezagun, lehen matrikulazioaren data joko da halakotzat, edo, datu horren faltan, dena delako ibilgailu mota edo eredu fabrikatzeari utzi zitzaion eguna. Hobari hori eskatu egin beharko da, eta baldintza hauek bete beharko dira onuradun izateko:*

1. *Ibilgailuaren titular nagusia hobariaren onuraduna izatea.*
2. *Onuradunak egiaztatzea ibilgailu klasikoak, antzinakoak edo historikoak sustatu edo zaintzeko klub edo elkarte bateko kidea dela”.*

Erreklamazioan zergadunak hurrengo eskatzen du: *“...se anule dicha ordenanza, se devuelva el dinero recaudado y se compense de alguna forma a los ciudadanos, a los que de manera artificiosa se les ha «obligado, sugerido o encaminado» a inscribirse en una asociación para obtener dichas ventajas fiscales vulnerando por tanto sus derechos”.*

2. Arartekoak informazioa eskatu zuen eta Gasteizko Udalak erantzun modura 2018ko ekainaren 25ean Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpenaren kopia bidali zion. Horren babesean, hurrengo erabaki zen: *“inadmitir por extemporánea la reclamación (...) en relación con las*





*liquidaciones y el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del año 2017”.*

3. Erabakiaren edukia ikusirik, Arartekoak berriz eskatu zuen Gasteizko Udalaren lankidetzat, ebazpenak berez ez baitzuen lantzen herritarrak kexa egiteko argudio nagusia, hau da, elkartzeko askatasunaren eskubidea urratzea, 1/2002 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, elkartzeko eskubidea arautzen duenak, 22 CE eta 2 artikuluetan xedatutakoarekin bat. Ildo horri eutsiz, 9. atalak honakoa onartzen du: *“Elkarte baten kide izatea inoiz ezin da arrazoi izan pertsona batentzat, administrazio publikoengandik aldeko, abantailazko edo bereizkeriazko tratua izateko”.*

2018ko ekainaren ebazpeneko testuan elkartze-eskubideari buruzko aipamen bakarra ordenantzan hobariaren bilakaera historikoa azaltzeko da. Zehazki, erabakitako aldaketaren prozedura-*bidea* adierazten zuen. Aurrekoaren harira, hala esaten zen:

*“De otra parte, se modifica la bonificación para los vehículos históricos o con una antigüedad mínima de veinticinco años, que en la propuesta inicial se suprimía, excepto para vehículos históricos inscritos en el Registro de Vehículos Históricos del Gobierno Vasco y en un porcentaje del 50% (Acuerdo Pleno 28/10/2016 BOTHA nº 121 de 31/10/2016) y, después, y, a la vista de las alegaciones, se amplió para recoger aquellos supuestos cuyo titular sea el beneficiario de la bonificación y acredite su pertenencia a un Club o Asociación que tenga como fin la promoción o conservación de vehículos clásicos, Antiguos o Históricos, y en un porcentaje del 90%.*

*La nueva regulación de este beneficio fiscal en la Ordenanza Fiscal municipal es acorde con lo establecido en la Norma Foral 44/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.*

*La bonificación también trata de conjugar el papel y representatividad de esta clase de vehículos, con los nuevos requisitos ambientales expresados en la calificación de los vehículos realizada en el año 2016, y, en coherencia con la nueva regulación general de los beneficios fiscales que entra en vigor en 1 de enero de 2017.*

*La redacción es así mismo idéntica a la recogida por otros Ayuntamientos, como el de Logroño.*

*La decisión sobre beneficios fiscales corresponde al Pleno de la Corporación, en el marco de la política fiscal municipal, y, de acuerdo con lo previsto en la normativa que rige esta materia (Ley 7/1985, de 2 de abril, bases de*



*Régimen Local y Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, Haciendas Locales Alavesas).*

*Por último, indicar que en el “Informe de la comisión de expertos para la revisión del modelo de financiación local” (Julio 2017) del Ministerio de Hacienda, se propone, por razones medioambientales, «suprimir la actual bonificación del 100% que tienen los vehículos históricos o aquellos que tienen una antigüedad mínima de 25 años en el Impuesto municipal sobre Vehículos de Tracción Mecánica».”*

Kexagileak, bere kexan betiere aldarrikatu du elkartze-askatasunaren eskubidea arriskuan jartzen dela trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalak, Gasteizko Udalean 2017tik indarrean dagoenak, 4.1.3. artikuluan eskatzen duen baldintzarekin. Nolanahi ere, zerga-onura (trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota % 90eko hoberia) pertsona onuraduna elkarte edo klub baten kide izatera lotzen du, horren helburua ibilgailu klasikoak, zaharrak edo historikoak kontserbatu edo sustatzea izaki.

4. Bigarren erantzunean, Gasteizko Udalak baieztatu du ordenantzari dagokionez, *“no presenta visos de ilegalidad o de vulneración de derecho constitucional alguno”.*

Bidalitako ebazpenaren testu osoak hala dio:

*“En relación con el asunto de referencia, y en respuesta a su escrito de fecha de 3 de agosto, manifestamos lo siguiente:*

*Por Resolución de la Concejalía de este Departamento de Hacienda de 25 de junio de 2018, se ha dispuesto la inadmisibilidad de la reclamación efectuada por la sociedad en relación con las liquidaciones del año 2017 del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.*

*Como se dice en el punto 3 de la Resolución, la nueva redacción de la bonificación por vehículos históricos o que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años se hizo, por Acuerdo Pleno 23/12/2016, publicado en el BOTHA nº 146 de 28/12/2016, de modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica para el año 2017.*

*La tramitación de la modificación de la Ordenanza Fiscal se ha regido por lo dispuesto en los artículos 15 a 19 de la Norma Foral 41/198, de 19 de julio, de las Haciendas Locales Alavesas.*





*La bonificación es acorde a lo establecido en la Norma Foral 44/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica y se ajusta a las facultades conferidas en la misma.*

*La redacción de la bonificación es idéntica a la establecida por otros Ayuntamientos en sus Ordenanzas Fiscales.*

*La bonificación por vehículos históricos o que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz no presenta visos de ilegalidad o de vulneración de derecho constitucional alguno.”*

### Gogoetak

1. Herritarrak aurkeztutako erreklamazioa ikusirik, eztabaidak ondorengo oinarritu behar du: 2018ko ekainean hartutako ebazpena zuzenbidearekin bat al datorren zehaztean. Beraz, ezinbestez hobari eztabaidagarria elkartze-askatasunerako eskubidearen ikuspegitik aztertu behar da. Izan ere, kexaren sustatzaileak likidazioaren deuseztasun-akatsa erabiltzen du, bere iritziz trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalak oinarritzko eskubidea urratzen baitu, hain zuzen ere, elkartzeko eskubidea (22 CE artikulua) elkartze-askatasun negatiboaren alderdian.

Hau da, kexa honen helburua ez da eta, gainera, ez da zalantzan jartzen ari 2017an ordenantza fiskalaren aldaketa onartzeko prozedura formalarekiko errespetua, nahiz eta, itxuraz, Gasteizko Udalak hori adierazi duen. Aztergaia hobariari emandako idazkera eta onartutakoaren arabera, elkarte-askatasunarekin bateragarritasuna da.

Hortaz, bai ordenantza fiskalean, baita foru-arauan ere, abiapuntua testua da, edukia elkartzearen funtsezko eskubidearekin bat al datorren zehazteko.

2. 2017. urtean onartu ostean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 4.1.3. artikulua hurrengoa adierazten du:

*“Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotaren % 90eko hobaria emango da ibilgailu historikoak nahiz hogeita bost urtetik gorakoak direnean, fabrikatu zirenetik kontatuta. Fabrikatze data ez bada ezagun, lehen matrikulazioaren data joko da halakotzat, edo, datu horren faltan, dena delako ibilgailu mota edo eredu fabrikatzeari utzi zitzaion eguna. Hobari hori*





*eskatu egin beharko da, eta baldintza hauek bete beharko dira onuradun izateko:*

- 1. Ibilgailuaren titular nagusia hobariaren onuraduna izatea.*
- 2. Onuradunak egiaztatzea ibilgailu klasikoak, antzinakoak edo historikoak sustatu edo zaintzeko klub edo elkarte bateko kidea dela.”*

Bestalde, udal ordenantza fiskalek 44/1989 Foru Arauak, uztailaren 19koak, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergari buruzkoak, xedatutakora egokitu behar dutenez, 4. artikuluan Arabako Lurralde Historikoan kokatutako udalerrriak, egokitzen joz gero, hobari bat ematera gaitzen ditu ondorengo moduan:

*“6. Zerga ordenantzek, koefizientea handitzeagatik kuota handitu den edo ez gorabehera, honako hobariak arautu ahal izango dituzte Zergaren kuotari dagokionez: (...)*

*c) % 100era arteko hobaria ibilgailu historikoentzat edota gutxienez hogeita bost urte dituztenentzat, fabrikazio datatik zenbatuta; fabrikazio data zein den jakin ezean, lehenengo matrikulatzea hartuko da halakotzat, edo bestela, ibilgailu mota hori edo aldaerak egiteari utzi zitzaion data.*

*Aurreko letretako hobarien gainerako edukiko nahiz formako alderdiak zerga ordenantzan arautuko dira”.*

Hots, aurreikuspen hau oso lausoa da eta horretan oinarrituta, tokiko erakundeek aukera anitz eta desberdin dute. Guztiak baliozkotuak daude, foru arauak finkatutako gaitze-esparruarekin bat datozen neurrian, baina baita Konstituzioa, legeak eta goi-mailagoko bestelako administrazio-ebazpenak, legeari gordetako arloa arautzen dutenak ala aldekoak ez diren edo eskubide indibidualak murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeragina ezartzen dutenak urratzen ez dituzten heinean ere<sup>1</sup>. Bestela, halako ustezkoetan xedapenak deuseztatu beharko lirateke.

- 3. Espainiako Konstituzioak 22. artikuluan elkartzeko eskubidea oinarritzko eskubide bezala onartu eta aldarrikatzen du honako moduan:*

*“1. Elkartze eskubidea aitortzen da.*

---

<sup>1</sup> Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 47.2. art.: *“Erabat deusezak izango dira orobat honako administrazio-xedapen hauek: Konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak urratzen dituztenak; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta aldekoak ez diren edo eskubide indibidualak murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeragina ezartzen dutenak”.*



2. Erabili edo jarraitzen dituzten bide eta helburuak delitu bezala tipifikaturik dauden elkargo ilegalak dira.
3. Artikulu honen babesean sorturiko elkargoak erregistroan ezarri beharko dira zabalkunde ondorioetarako bakarrik.
4. Elkargoak beraien ekintzetatik ezeztatu edo galerazi ahal izango dira arrazoituriko epai erabakiaren bitartez.
5. Isileko eta paramilitar izakerako elkargoak galerazten dira”.

Funtsezko eskubidea 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, elkartzeko eskubidea arautzen duena, onartuz garatu zen araubidez eta 2. artikuluan hala dio:

## **“2. artikulua. Edukia eta printzipioak**

1. Pertsona orok askatasunez elkartzeko eskubidea du, xede zilegiak lortzeko.
  2. Elkartzeko eskubidera biltzen da elkartzeko edo elkarteak sortzeko askatasuna, aurretiazko baimenik behar gabe.
  3. Inor ezin da behartu elkarte bat eratzera, elkarte horretan parte hartzera edo elkarte horretan izatera, ezta legearen arabera eratutako elkarte baten kide dela adieraztera ere.
  4. Elkarteak eratu, eta elkarteen antolaketa eta jardunbidea ezarriko dira Konstituzioaren, lege organiko honen eta gainerako antolamendu juridikoaren esparruan.
  5. Elkarteen barne-antolaketa eta jardunbidea demokratikoak izan behar dute, aniztasuna zeharo errespetatuta.
- Zuzenbide osoz deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen edozein alor aintzat hartzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta akordioak.
6. Erakunde publikoek elkartzeko eskubidea egikaritu ahal izango dute euren artean, edo subjektu pribatuen artean, suspertze- eta laguntza-neurri gisa, baldin eta horien baldintza berberetan jarduten badute, elkartearen jardunbidean nagusitasuna saihesteko asmoarekin.
  7. Elkarteak legearen aurkakoak dira, delitu gisa tipifikatutako xedeak badauzkate edo bideak erabiltzen badituzte.
  8. Debekatuta daude elkarte sekretuak eta izaera paramilitarra dutenak.
  9. Elkarte baten kide izatea inoiz ezin da arrazoi izan pertsona batentzat, administrazio publikoengandik aldeko, abantailazko edo bereizkeriazko tratua izateko”.



Gogorarazi behar da transkribatutako artikulua, 6. atalean<sup>2</sup> izan ezik, eskubidearen edukiari dagokion funtsezko mamiaren alderdiak zehazten dituela eta, ondorioz, lege organikoaren maila du. Hala, aurreikuspenak bakarrik lege organikoaren maila duen beste arau batek alda ditzake.

4. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian oinarrituta, zientzia-doktrinak defendatutakoari jarraiki, elkarte-eskubidearen funtsezko edukia hiru ikuspegi edo alderdien bitartez adierazten da eta elkarren artean osagarriak dira: elkarteak eratze eta jada sortutakoetara atxikitze askatasuna, ez elkartzeko eta kide izateari uzteko askatasuna, eta, azkenik, esku-hartze publikorik gabe elkarteek antolatu eta funtzionatzeko duten askatasuna.

Elkarte-eskubideari buruzko eduki publiko hirukoitzarekin batera, bere egileen arabera, eskubideak laugarren dimentsioa du. Oraingoan pribatuen artekoa da eta kideei gaitasun-sorta bermatzen die. Kasu honetan elkartearen aurrean kideak banaka kontuan hartzen dira edo, hala badagokio, partikularrak dira eta elkarteetan sartu nahi dute.

5. Herritarraren erreklamazioa elkarte-eskubidearen ikuspegi publikoan kokatzen da, hau da, herritarrek aginte publikoaren aurrean duten erlazioan eta, zehazki, eskubidearen eduki negatiboan: pertsona orok ez elkartzeko duen eskubidean, aukera pertsonal hori erabat legezkoa izanik. Horrez gain, aginte publikoek erabakia errespetatu behar dute 1/2002 Lege Organikoak positibotzat dituen bermeekin. Hala, elkarte baten kide izatea *“inoiz ezin da arrazoiz izan pertsona batentzat, administrazio publikoengandik aldeko, abantailazko edo bereizkeriazko tratua izateko”* eta: *“Inor ezin da behartu elkarte bat eratzeri, elkarte horretan parte hartzeri edo elkarte horretan izateri, ezta legearen arabera eratutako elkarte baten kide dela adierazterik ere”*.

Adierazi den bezala, Gasteizko udalerrian zerga-onura, hau da, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota % 90eko hobaria lortzea zuzenean ondorengoaren arabera da (4.1.3. artikulua) *“Onuradunak*

---

<sup>2</sup> Elkartzeko Eskubidea Arautzeko 1/2002 Legearen azken xedapenetatik lehenengoak hauxe adierazten du: *“1. Lege organikoaren lerruna dute lege honen 1. artikulua; 2. artikulua, horren 6. paragrafoak izan ezik; 3. artikulua, horren g) idatz-zatiak izan ezik; 4. artikuluko 2, 5 eta 6. paragrafoak; 10.1 artikulua; 19. artikulua; 21. artikulua; 23.1 artikulua; 24. artikulua; 29.1 artikulua; 30. artikulua 3 eta 4. paragrafoak; 37. artikulua; 38. artikulua; xedapen indargabetzaile bakarrak; eta azken xedapenetatik lehenengoaren 1. paragrafoak, eta azken xedapenetatik bigarrenak eta laugarrenak. Horiek lege organikoaren izaera dute, Konstituzioaren 22. artikuluan jasotako elkartzeko oinarriko eskubidea garatzen dutelako.*

*2. Konstituzioaren 149.1.1 artikuluan ezarritakoaren babesean, estatu osoan aplikatuko dira lege honen 2.6 artikulua; 3.g) artikulua; 4. artikulua 1 eta 4. paragrafoak; 5. artikulua; 6. artikulua; 7. artikulua; 8. artikulua; 9. artikulua; 10. artikulua 2, 3 eta 4. paragrafoak; 11. artikulua; 13.2 artikulua; 15. artikulua; 17. artikulua; 18.4 artikulua; 22. artikulua; 25.2 artikulua; 26. artikulua; 27. artikulua; 28. artikulua; 30. artikulua 1, 2 eta 5. paragrafoak; laugarren xedapen gehigarria eta lehenengo xedapen iragankorra”*.



*egiaztatzea ibilgailu klasikoak, antzinakoak edo historikoak sustatu edo zaintzeko klub edo elkarte bateko kidea dela.”*

6. Gaiari eutsiz, Konstituzio Auzitegiak egindako hainbat aldarrikapen argia ematen du eta, gero, 1/2002 Lege Organikoak kontuan hartu dituen aurreikuspenen oinarri izan dira.

A) Elkartzeko eskubidearen oinarritzko edukian elkartzeko eta elkarkide ez izateko eskubideak daude. Bi kasuetan eskubide hori onartu zuen 5/1981 Konstituzio Auzitegiaren epaiak: *“el derecho de asociación reconocido por nuestra Constitución en su art. 22. 1, comprende no sólo en su forma positiva el derecho de asociarse, sino también en su faceta negativa, el derecho de no asociarse”* (19. lege oinarria).

Era berean, 219/2001 Konstituzio Auzitegiaren Epaiak ondorengoa onartu du: *“Al respecto, ha de tenerse presente que si bien el art. 22 CE consagra «una de las libertades capitales de la persona, al asentarse justamente como presupuesto en la libertad» (STC 244/1991, de 16 de diciembre, F.2) y esa libertad de asociación es también «un componente esencial de las democracias pluralistas» (STC 104/1999, F.3)”*

B) Elkartze-askatasunaren printzipio orokorrarekiko salbuespenak kasu bakoitzean justifikatu behar dira, helburu publiko garrantzitsuak lortzeko neurriei erantzuten dietelako eta nahitaezko atxikipenera jo gabe helburuak lortzea zaila suertatzen delako. 67/1985 Konstituzio Auzitegiaren Epaiak (oinarritzko zatia errepikatzen da maiatzaren 11ko 89/1989 Konstituzio Auzitegiaren Epaian), Elkargo Profesionalei nahitaez atxikitzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, elkartze-askatasunaren printzipio orokorrarekiko salbuespenak kasu bakoitzean justifikatu behar dira, helburu publikoak lortzeko beharrezko neurriei erantzutean funtsatuta eta beharrezko mugak izango dituzte *“para que ello no suponga una asunción (ni incidencia contraria a la Constitución) de los derechos fundamentales de los ciudadanos (fundamento jurídico 3.º). En consecuencia, tal limitación de la libertad del individuo afectado consistente en su integración forzosa en una agrupación de base (en términos amplios) “asociativa”, sólo será admisible cuando venga determinada “tanto por la relevancia del fin público que se persigue, como por la imposibilidad, o al menos dificultad, de obtener tal fin, sin recurrir a la adscripción forzada a un ente corporativo”.* (139/89 Konstituzio Auzitegiaren Epaiak, 2. lege-oinarria).

*“Ahora bien, la facultad del legislador de restringir el ejercicio del derecho de asociación en atención a otros bienes con relevancia constitucional está sometida, a su vez, a ciertos límites constitucionales, a los cuales hemos hecho referencia reiteradamente en nuestras decisiones y, entre las más*



*recientes, en la STC 292/2000, de 30 de noviembre, FJ 11. Uno de esos límites es de carácter formal, pues la directa limitación de un derecho fundamental sólo puede establecerse en una Ley Orgánica (SSTC 101/1991, de 13 de marzo, F. 2, y la ya citada 173/1998, F. 8). Otros, en cambio, son de carácter material. Así, en primer lugar, la limitación ha de ser cierta y previsible, pues en otro caso la Ley perdería su función de garantía del propio derecho fundamental que restringe y sometería el ejercicio del derecho a la voluntad de quien ha de aplicar la Ley; es ésta una exigencia que tiene asiento no sólo en nuestra jurisprudencia anterior sobre otros derechos fundamentales (así, con toda claridad, en la STC 292/2000, FF 15 y 16, en relación con el derecho a la autodeterminación informativa) sino también en la doctrina del Tribunal Europeo de Derechos Humanos sobre los límites legales al ejercicio del derecho de asociación (art. 11 CEDH), como expresa la STEDH de 20 de mayo de 1999, asunto Rekvenyi contra Hungría, § 60. En segundo lugar, la limitación legal ha de ser a la vez proporcionada y respetuosa con el contenido esencial del derecho fundamental, según resulta de la doctrina consolidada de este Tribunal que se expone con afán sistemático en la ya mencionada STC 292/2000, F 11, doctrina ésta sin duda aplicable a la restricción por Ley del derecho de asociación". (219/2001 Konstituzio Auzitegiaren Epaia, urriaren 31koa, FJ 7).*

7. Gasteizko sindiko edo herritarren defendatzaileak jada 2017. urtean tokiko erakundeari hobariaren konfigurazio berriak sortzen zituen zalantzak jakinarazi zizkion. Ildo horri eutsiz, 2017ko apirilaren 21eko ebazpenean hurrengo komenigarria zela planteatu zuen: *"al menos en el presente ejercicio, por ser el primero en el que se contempla esta condición, se aplique la bonificación en el impuesto a todas aquellas personas propietarias de este tipo de vehículos que se den de alta en una asociación o club de este tipo antes de la fecha en que soliciten la bonificación, y en todo caso antes de 22 de mayo de 2017."*

Herritarrek aurkeztutako erreklamazioen xedea bestelakoa zen eta ondorengoan oinarritzen zen: ibilgailu zaharren titularrek hobariaren eskakizun berriei egokitzeko ez dutela denborarik izan. Aldaketa 2016ko abenduaren 23an Udalbatzak egindako saioan ordenantza behin betiko onartu zenean gertatu zen eta abenduaren 28ko ALHAOn argitaratu zen, hau da, zerga sortu baino 4 egun lehenago (urtarrilaren 1ean). Nolanahi ere, une horretan jada egiaztatu behar zen elkartekide izatearen baldintza.

Sindikoa bere ebazpenean jaso zuen hainbat hausnarketa oso adierazgarria da, beraz, erakunde honek hitzez hitz idatziko ditu:

*“En este sentido, creemos posible coincidir en que la finalidad de esta bonificación sería fomentar la preservación del patrimonio histórico-industrial, es decir, promover que los particulares cuiden y conserven unos bienes muebles que son, o están llamados a ser, parte de nuestro legado histórico y patrimonial.*

*La condición de estar afiliado a un club o asociación de este tipo podría ser adecuada si lo que estuviéramos fomentando fuera el asociacionismo automovilístico, pero no lo es, o no necesariamente, cuando lo que tratamos de fomentar es que los vehículos de cierta antigüedad sean conservados por sus dueños y que lo sean en las mejores condiciones posibles.*

*Es obvio que la bonificación del 90% del impuesto de vehículos es incentivo suficiente para que propietarios de este tipo de vehículos se asocien a clubes automovilísticos con la única intención, precisamente, de beneficiarse de la bonificación en el impuesto. Pero, más aún, es acicate suficiente para que al albur de esta normativa florezca en nuestra ciudad una pléyade de clubes y asociaciones automovilísticas que, bajo una razón social sin duda loable, se constituyan con la única finalidad de acoger a esos propietarios interesados en beneficiarse de la bonificación, a una cuota que resulte mutuamente rentable. De hecho, nos consta ya que se han constituido varias de estas entidades de nuevo cuño.*

*Y así, de mantenerse la medida, podríamos toparnos en breve con que Vitoria-Gasteiz, ciudad que desde hace años viene apostando claramente por el fomento de la movilidad activa, se convirtiera de pronto en una de las ciudades del Estado con mayor número de personas asociadas a clubes automovilísticos.*

*Y lo cierto es que esta condición de estar asociado a un club no es garantía en absoluto de que se cumplan los objetivos de la bonificación, es decir, ni siquiera nos garantiza que los vehículos inscritos estén bien conservados, que estén en buen estado, porque nada se dice al respecto.(...)*

*En definitiva, cabe plantearse la conveniencia de mantener una condición, para acogerse a la bonificación, que en sus términos no responde a la finalidad de la bonificación, ya que únicamente sirve para inflar el asociacionismo automovilístico, pero no para garantizar que los vehículos de más de 25 años, llamados a constituir un patrimonio protegible, estén bien mantenidos y conservados, como sí lo garantiza, o debería hacerlo, la ITV periódica.”*



8. Ez dagokio Arartekoari hobari honen irismena eta konfigurazioa zehaztea. Halaber, ez da bere aginpidekoa mantentzeari buruz erabakitzea. Erabaki horiek bakarrik Gasteizko Udaltzak har ditzake. Baina, Arartekoaren eginkizuna da herritarren eskubideen eremuan aginte publikoen jarduerak izan ditzaketen legez kanpoko mutur sartzeak agerian uztea. Bereziki, esku-hartzeek oinarrizko eskubideetan eragin eta horiek mugatzen dituztenean.

Elkartze-eskubideak, bere ikuspegi negatibotik, ez elkartzeko eskubidea du eta eskubide horren inguruan legegileak berme-ondoreak zehaztu ditu. Izan ere, 1/2002 Lege Organikoak 2. artikuluan aipatzen ditu eta aginte publikoak nahasiak daude. Hala, Konstituzioa (oinarrizko eskubideak barne) urratzen duen jarduerarik ez dute burutuko (9.1 CE artikulua)<sup>3</sup>, baina, aldi berean, aginte publikoei positiboan behartzen die, Konstituzioarekin bat jardun behar dutelako eta berariaz agintzen zaie oinarrizko eskubideen eraginkortasuna hedatzera, oso-osorik betetzeko (53.1 CE artikulua).

9. Ondorioz, onartu behar da neurria (zerga-onura klubaren edo elkartearen kide izatera lotuta) elkartzeko askatasunarekin bat ez datorrela eta helburua lortzeko neurrizkoa ez dela. Legeak oso modu objektiboan definitzen du ibilgailu historikoa<sup>4</sup>, ibilgailuaren antzintasuna, ezaugarriak, izan ditzakeen ingurumen-igorpenak. Horiek guztiak, besteak beste, elementu objektiboak dira salbuespena egituratzeko.

Gure lege-antolamenduak legegileari elkartze-eskubidea mugatzeko ahalmena onartzen dio *"Konstituzioan garrantzia duten beste ondasun batzuk kontuan hartuta"* eta askatasuna mugatu gabe helburuak lortzeko zailtasunak badaude.

<sup>3</sup> *"Hiritar eta botere publikoak Konstituzioaren eta araugintza juridikoaren menpean daude"*. (EK 9.1.art)

*"Aurreko Tituluko bigarren kapituluaren aitorturiko eskubide eta askatasunek botere publiko guztiak behartzen dituzte. Bakar bakarrik, legez, kasu guztietan haren oinarrizko funtsa errespetatu beharrez, arau daiteke haien eskubide eta askatasun iharduera, berauk 161. artikuluan, 1 a) aldez aurretik pentsaturiko arauz babestua izanik"*.

<sup>4</sup> "Ibilgailu historikoak" dira, 25 urtetik gorako antzintasuna edo interes berezia eskaintzen dien bestelako berezitasun historikoren bat izateaz gain, 1247/1995 Errege Dekretuak, uztailaren 14koak, ibilgailu historikoei buruzko araudia onartzen duenak, xedatutako baldintzak dituztenak. Hala, hurrengoak bete behar dira: 1. Autonomia erkidegoaren organo eskudunak egiaztatua duen laborategian aurretiazko ikuskapena. 2. Historiko modura ibilgailuaren katalogazioari buruzko aldeko ebazpena, autonomia erkidegoaren organo aginpidedunak emana. 3. Azterketa teknikoa, matrikulatzearen aurrekoa, eskatzailearen egoitzako probintzian dagoen ibilgailuen azterketa teknikorako estazioan egina. 4. Ibilgailua historiko gisa matrikulatzea interesdunaren egoitzari dagokion Trafikoko Probintzia Burutzan.

Arrunki "ibilgailu klasikoak" deritze XX. mendeko lehenengo erdia pasata fabrikatu edo matrikulatutakoei, gutxienez 25 urte badituzte eta ezaugarri bereziren batez hornituak badaude eta, noski, kontserbazio-egoera onargarria bada.



Arartekoaren iritziz, ordenantza fiskalak elkartze-eskubideari ipintzen dion muga ez dator, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari jarraiki, legezko mugaketa gaitzen duten ustezkoekin bat. Eragina ez da lege organiko babesean sortu, araubidezko araua (kasu honetan, ordenantza fiskala) onartzearen bidez baizik. Horrez gain, eskubidea erabiltzeko muga ez da ezartzen Konstituzioaren beste balio, eskubide edo askatasun batzuk batu eta elkartze-eskubidearen aldi eta maila berean babestu behar direlako.

Aipatu den bezala, toki erakunde horrek objektibotasunez hobariaren elementu formalak eta pertsonalak mugatzeko, bitarteko ugari ditu, zergadunen elkartzeko askatasunean sartu gabe.

Horregatik guztiarengatik, Arartekoak egiten du ondorengo

#### GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen dio Gasteizko Udalari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala 4.1.3. artikuluan aldatzea, ibilgailu historiko eta zaharretarako aurrez ikusten diren hobarien onuradun izateko orduan baldintza bat ez dadin izan klub edo elkarte baten barruan egotea.

Era berean, Gasteizko Udalak 2018ko ekainean Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpena berraztertu eta ofizioz ezeztatu beharko luke, ordenantza fiskalak hobarian gehiegikeriaz jokatu duelakoan.

